


Duela 16 milioi urteko tardigrado fosila anbarean

Ornogabe mikroskopikoak dira tardigradoak. 500 milioi urteko eboluzioa egin dute Lurrean, eta bost suntsipen masiboetan bizirik atera dira, muturreko baldintzetan bizirik irauteko duten gaitasun bereziari esker: inguruko baldintzak zailtzen direnean, kiribildu eta kriptobiosi-egoeran sartzen dira. Eboluzio luzea egin duten arren, orain arte bi tardigrado fosil besterik ez dituzte aurkitu erregistro fosilean. Orain, [hirugarrena aurkitu dute](#), ezustean, Dominikar Errepublikako anbar-tanta batean.

Erregistro fosilean hain urriak izateko arrazoia da ez daukatela nahikoa mineralik fosilizatzeko, eta tamaina mikroskopioak ere zaildu egiten du haiek ikustea. Aurkitutako tardigradoak 0,56 mm-ko luzera du, eta laser-mikroskopioaren bidez ikusi ahal izan dute jada bizirik ez dagoen espezie bateko kidea dela. Hain zuzen, gaur egun bizirik dauden 1.300 tardigrado-espezieen aldean oso ezaugarri desberdinak ditu. Batez ere, atzaparretan eta hesteetan hauteman dituzte desberdintasunak. *Paradoryphoribius chronocaribbeus* izena jarri diote espezieari. Tardigradoen eboluzioa oso ezezaguna izan da orain arte, eta ikertzaileek uste dute fosil honek hainbat gauza argitzen lagunduko duela. ●



ARG.: NJIT eta Harvardeko Unibertsitatea.

Arropagintza duela 120.000 urte hasi zela argitu dute

Arkeologoek uste dute gizakion eboluzio kultural eta kognitiboan mugarri garrantzitsua izan zela arropagintza. Izan ere, ezinbestekoa izan zen lehen gizakiak Afrikatik ingurune berrietara zabaltzeko. Orain, Max Planck Institutuko arkeologoek Marokon aurkitutako hezur-erreminta batzuei esker jakin da arropagintza uste zen baino askoz ere lehenago garratu zela. Erreminta gisa erabilitako 60 hezur baino gehiago aurkitu dituzte Contrebandiers izeneko kobazuloan, eta duela 120.000-90.000 urtekoak zirela frogatu dute.



ARG.: Emily Yuko Hallett, 2009.

Arkeologoek ikusi dute hainbat erreminta-mota erabiltzen zituztela animaliak larrutzeko erremintez gain, [larrua lantzeko erremintak ere aurkitu dituzte](#). Hezurrek dituzten markak aztertuta argitu dute erabilera. Animalia haragijaleen barailak eta gorputz-adarrak erabiltzen zituzten larrua lantzeko: animalia larrutzen zuten, larrua aprobe-txatzeko, eta barailak erauzten zizkieten gero larrua lantzeko. Bi erreminta espezializatu batera erabiltzeak iradokitzen du ordurako aspalditik hasitako ohitura bat zela. Erregistro arkeologikoan dauden zaharrenak dira. ●